

## UDALBATZAKO IDAZKARITZA NAGUSIARI

Talde Popularreko bozeramaile Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 90. eta 91. artikuluan xedatutakoaren arabera, ARAU PROPOSAMEN hau aurkezten du, ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEKO ORDENANTZA FISKALAREN inguruan, Udalbatzan azter dadin.

### JUSTIFIKAZIOA

Guraso bakarreko familiak, gehienak ama batez eta seme-alaba batez edo batzuek osatuak, prekariedade-egoeran bizi dira askotan. Uste dugu hobari bat merezi dutela OHZn, araubide orokorreko familia ugarien hobariarekin pareka daitekeena.

Hori dela eta, **ARAU PROPOSAMEN** hau aurkezten dugu.

OHZ arautzen duen ordenantzako 12. artikuluan apartatu bat txertatzea.

#### 12.7. Guraso bakarreko familiak

Ondoko ehunekoei eta mugei dagokionez, guraso bakarreko familien ohiko etxebizitza izatera zuzendutako hiriko ondasun higiezinak, haietako subjektu pasiboek, dagokien tituluaren bidez, guraso bakarreko familia baten titular direla egiaztatzen dutenean.

Guraso bakarreko familiaren titular izateko baldintza mantentzen dituzten zergaldietan aplikatuko da hobaria, ondoko zenbatekoen eta mugen arabera:

- a. Seme edo alaba bat duten guraso bakarreko familiak, kuotaren % 60, muga 460 euro dela.
- b. Bi seme-alaba dituzten guraso bakarreko familiak, kuotaren % 70, muga 460 euro dela.
- c. Guraso bakarreko familia izateaz gain, familia ugariaren titulua duten familiak OHZ ordaintzetik salbuetsita egongo dira.

Donostia, 2023ko abuztuaren 21a

Borja Corominas Fisas,  
Udal Talde Popularreko bozeramailea